



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “ARTIUM FUNDAZIOA 2001-2002” FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Batzar Nagusiek hala eskatuta Artium Fundazioaren 2001-2002 aldiaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena mamitu du.

Fundazioa 2001eko ekainaren 7an sortu zuen Arabako Foru Aldundiak, helburua Arabako Arte Garaikidearen Euskal Museoa Zentroa-Artium kudeatu eta zuzentzea duelarik, artearen mantenu, zaintza, hedapen, eta abarrekin lotutako bestelako jardueraz gain.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak iritziaren atalean sarrera bat egin du eta bertan adierazten da fundazioei erakunde pribatu modura ezargarria zaien arautegian ez badago ere administrazio publikoek ondasun, zerbitzu eta langileriaren kontratazioan jarraitu beharreko prozedurei dagokiena, kasu honetan, gogoan izanda Administrazioak sortu, finantzatu eta kontrolatutako entitatea dela, ezin ekidin daitezke langileria kontratatzeke berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak, ez eta publizitate eta lehiarenak ere ondasun eta zerbitzuen kontrataziorako. Aurrekoari jarraiki, printzipio hauek HKEEk derrigorrez betebeharrekoztat jo ditu.

Ildo honetan beretan, fiskalizazio txostenak Irizpenen atalean kezka erakutsi du Fundazioak bezalako molde juridikoen erabilerak fondo publikoen erabilerari eskagarria zaion kontrolaren kaltea eragin dezakeelako, eta honenbestez lege aldaketak egiteko gomendatzen du, erakunde hauek berariaz Erakundeen Administrazioaren atal modura barne hartuko dituztenak.

Fiskalizazioaren xede den Fundazioaren jarduerari buruzko iritzi zehatzean, HKEEk indarreko arautegia eta aurrez aipatutako printzipioak urratu egin direla azaleratu du.

Langileriaren esparruan adierazi da 25 langile hautatzeko dokumentazio ezak ez duela uzten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana egiaztatzen; honez gain, bi pertsonaren kontratazioan printzipio hauek ez direla gorde egiaztatuta da. Halaber adierazi da zenbait kasutan deialdietako iragarkietan argitara emandako ordainsariak ez datozela bat geroko kontratuetan barne hartu direnekin. Azkenik esan, pertsona bat kontratatu dela lanpostu bat betetzeko, eskatutako titulazio betekizunak bete gabe.



Ondasun erosketa eta zerbitzuei dagokienez, fiskalizazioaren arabera, publizitate eta/edo lehia printzipioak urratu dira 305 eta 794 mila euroko esleipenetan, 2001 eta 2002 urteetarako hurrenez hurren. Honez gainera, 88 mila euroko bi espedientetan, Fundazioak berak Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen betekizunetara meneratzea erabaki zuena, aipatutako printzipioak urratu dira.

Fundazioaren Kontuei buruzko iritzian, HKEEK ondorio informatiboetarako azpimarratu du Fundazioak izugarritzko menpetasuna duela Arabako Foru Aldundiaren ekarpenekiko. Gainera, museoa hartzen duen eraikinaren lagapenaren gaineko zalantza egoera ere azpimarratu da, izan ere, erabaki gabeko administrazio-auzibideko bi errekurtsio baitaude eta Aldundiak erregistratu gabe baitauka. Fundazioaren ondasunen balorazioei dagokienez, lursailak higiezinaren balioan ez direla barne hartu adierazi da. Kontuen gaineko iritzia positiboa da, aipatu diren zalantza eta salbuespenek mugatzen dutela.